



**ELAREN IRITZIA LANGABEZIAREN AURKAKO 2012RAKO PLANARI
BURUZ**

2012ko maiatzaren 21a

Aurtengo otsailaren 22an Eusko Jaurlaritzak, Confedebask, CCOOek eta UGTk, Gizarte-Elkarrizketarako Mahaian bildurik, "Langabeziaren aurkako 2012rako Plana" izeneko akordioa sinatu zuten.

I- AKORDIOAREN DIAGNOSTIKOA

Akordioaren lehen atalak enpleguaren egoera zertan den aipatzen du; dioenez, Gizarte Elkarrizketarako Mahaian "oinarritzko adostasunak" iritsi dira. Adostasun hauek ba omen daude ere "berehala ekin beharreko neurriei zein epe luzeagora behar izango direnei" buruz. Hots, sinatutakoaren arabera, Eusko Jaurlaritza, Confedebask, CCOO eta UGT bat datoz enpleguaren egoerari buruzko diagnostikoan eta hartu beharreko erabakietan.

ELA ez dago inola ere ados enpleguaren egoerari buruz egiten den diagnostikoarekin:

- Dokumentuak dio Euskal Herriko egoera sozioekonomikoa batezbesteko europarren antzekoa dela datu nagusiei dagokienez; enplegu maila batez besteko maila europarraren antzekoa dela, eta aipatu egiten du "langabezia tasaren hazkunde txiki baina jarraitua". Horrenbestez, sinatzaileek sinetsarazi nahi digute enplegua berton Europako antzeko egoeran dagoela, edo ez dela kezkatzekoa. Baina hau ez da inondik ere egia. EAEko langabezia maila espainiar Estatukoa baino txikiagoa izanagatik ere, Europar Batasunean lehen postuetan dago: %16an, EBko batez besteko %10,2aren aldean. Gainera, langabezia ez da gutxi hazi, asko baizik. Hain zuzen, 2008tik hona ia 10 puntu gehitu da, eta EBn, berriz, igoera bi puntukoa izan da.

Hurrengo taula honek langabezi tasak erakusten ditu (%):

	2012ko Martxoa
EB27	%10.2%
Belgika	%7.3
Danimarka	%8.1
Alemania	%5.6
Irlanda	%14.5
Grezia	%21.7
E. espainiarra	%24.1
HEH	%16.0
E. frantsesa	%10.0
Italia	%9.8
Herberek	%5.0
Austria	%4.0
Portugal	%15.3
Suezia	%7.3
Erresuma Batua	%8.2

Iturria: Eurostat

- Erregistratutako kontratuen %93 oraindik ere aldi baterakoa den arren, akordioan ez da inongo aipamenik egiten prekarietateari buruz edota aldi baterako enpleguan egiten den iruzur itzelaz. Beraz, patronalak saihestu egin du jokabide honi kargu hartzea.
- Halaber, ez da ezer esaten enpresei langileekiko gero eta indar handiagoa ematen dieten etengabeko erreformei buruz, laboralak zein negozioz kolektiboarenak. Hau are deigarriagoa da kontutan izanik CCOOek eta UGTk Confedebarekin eta Jaurkitzarekin lortutako akordioa otsailaren 22an sinatu zela, hots, Rajoyren lan eta negozioz kolektiboko erreforma erabaki eta hamabi egunetara.

II- AKORDIOKO NEURRIAK

Bigarren atalak, ustez, langabeziaren aurkako neurriak jaso beharko lituzke; akordioa sinatu dutenen artean erabakitako lan-ildoak jorratzen ditu, oinarritzat 2010-2013 Enplegu Plana hartzen duelarik. Plan hark zioenez, "ezinbestekoa da krisiaren aurrean enpresak babesteko eta enpresa traktoreak sustatzeko estrategiak indartzea, gure ekonomiaren zabalkunde maila, berrikuntza eta maila teknologikoa areagotuz, hauek izanik gakoak lehiakortasunerako eta iraunkortasun ekonomiko, sozial eta ekologikorako".

Aurreko paragrafoan erabiltzen den hiztegia ez da bat ere lasaigarria, ez baita enpleguarekin zerikusirik duen hitzik agertzen.

Akordioak jarduteko bi ildo finkatzen ditu:

1. Lanbide eragingarri, adostu eta engaiatua eraikitzen jarraitzea.

Sinatzaileen arabera, Lanbide finkatu eta indartu nahi dute; "zerbitzuen katalogo osoa zabaldu beharko du, baita zerbitzua herritar guztien esku egoteko eta erabilgarri izateko modua erraztu ere".

Hots, onartzen da funtzionatzen hastea ezinbestekoa dela, orain arte ezinezkoa gertatu dena. Hau edozein unetan litzateke larria, baina areago oraingo egoera ekonomikoa eta langabezia tasak direnak izanik.

Planak izango duen eragin hutsa ere onartzen dute, izan ere, ordurarte zer egin izan den aitortzen baitute; helburu bakarra hobetzea da.

2. Sustapen neurri batzuk abiatzea, 2012an gauzatzeko.

Pertsonei dagokienez, erabakiak bi sailetan banatzen dira:

Orain arte bazeudenak eta nahikoak izan ez direnak. Lehengo lepotik burua: Orientazio, informazio, laguntza, motibazio eta aholku pertsonalizatuzko

zerbitzua ematea; tituluak eta profesional-ziurtagiriak lortzera bideratutako Lanbide Heziketa (LH) finkatzen jarraitzea, eta lehenagotik datozen ahalegin batzuei eustea: hasierako LH indartzea, lantokietako prestakuntza eta Leonardo zein Erasmus programak.

Badago puntu berri bat, prestakuntza partzialaren aukera, on line edo enpleguarekin bateratzeko modukoa. Ez da aipatzen zein bitarteko, ikastetxe edota tresna ipiniko den, ez nola edo zein helbururekin gauzatuko den. Dena dela, ez da enplegu gehiago sortuko. Hizkuntz-ikastaroak ere aipatzen dituzte, zeinak lehenago ere ematen baitziren, baita prestakuntza eta praktikak biltzen dituzten prozesu mistoak ere. Honekiko, beste puntuekiko bezala, ez da argitzen zein baldintzatan eta nola garatuko diren.

Pertsonen atal honetan neurri gisa jasotzen da esperientziarekin hartutako gaitasun profesionalak behatu, ebaluatu, kreditatu eta erregistratzeko sistema garatu eta abiaraztea. Ekimen hau ere ez da berria; aitzitik, honez gero martxan egon behar zuen, baina ez da hala gertatu.

Enpresen atalari dagokionez, hau da garrantzitsuena:

Hainbat asmo aipatzen da baina modu orokorrean, zehaztasunik gabe: ehun produktiboaren beharrianak aztertzea, berariazko lankidetza zerbitzuak irekitzea eta lehiakortasuna ekintzailatzaren bidez hobetzea. Horretarako beste egitura bat sortuko da, Ekintzailatzarako Euskal Zerbitzua; noski, honek ziurrenik diru publikoa jasoko du funtzionatzeko eta bere partaideentzat.

Halaber, enplegua sortzeko ere negozio berrien sorrera bultzatu nahi dute, enpresa-ekintzaileak sarituz, autoenplegua eta hazten ari diren sektoreetako enpresa berriak sustatuz (hauek ez dira zehazten). Horiek saritzeko kontratatzeko laguntzak emango dituzte, eta kotizazio-gastuen zati bat ordainduko da. Hau formula aski ezaguna da, baina ezaugarri argi bat du: ez du balio enplegua sortzeko, enpresei diru publikoa emateko baizik.

Lurralde-kohesioari dagokionez:

Ahalegin bakarra aipatzen da, eskualde mailako enplegu-planak indartzea. Plan hauek lurraldearen plangintza estrategikoen emaitza izango dira, eta hauen oinarriak sustapen ekonomikoa, enplegua sortzea eta langabeziaren aurkako ekintza; proiektu konkrituak finantzatzeko dira eta kasu bakoitzean beharrezko diren baliabideak bideratuko dituzte, baina ez dago zehaztasun handirik.

III- AKORDIOAREN FINANTZIAZIOA

Hau da planeko zatirik konkretuena. 321,5 milioi euroz hornituko dute, eta hau gainera ukiezina dela diote sinatzaileek. Eusko Jurlaritzak 2012ko aurrekontuetan egiten dituen murrizketak (beraz, ontzat ematen diren murrizketak) ez direla inola ere aplikatuko plan honekiko.

IV- ONDORIOAK

Planaren izenak ez dauka zerikusirik bere edukiarekin. Benetan ez dago enplegua sortzeko izango den neurririk. Aipatzen diren jardunbideak hutsalak dira, asmo onak, teoria baino ez, zerbitzu eta funtzioen deskribapenetik hara doan ezer ez; zentzu praktiko eta erreala duen ezer ez dago.

Ez akordioan jasotako diagnostikoak, ez jardunbideek... planak ez dauka zerikusirik euskal langile-klaseak bizi duen egoera larriarekin.

2012rako enplegu-planaren helburuak lausoak dira, ez da helburu erreal eta zehatzik ezartzen, ezta exekuzio eperik edo garapen-planik ere. Beraz, amaieran ezinezkoa izango da erabakitzea zenbaterainoko eragina izan duen, baliagarria izan ote den edo bete duten; jokabide hau ohikoa da Jurlaritza honengan.

Zehaztu den puntu bakarra aurtengo aurrekontua da: 321,5 milioi, eta akordioan hitza ematen da hauek ez direla murriztuko. Eskandalu hutsa da enplegu-politikak egiteko aitzakiaz kopuru handiok blindatzea, izan ere, lanbide-heziketaren kasuan bezala, sinatzaileek ez baitute arazorik diru hori beren buruari esleitzeko: patronalek, CCOOek eta UGTk diru publikoa zalantza moduan, eta eragin jakinik gabe, kudeatzen dute. Akordioaren benetako funtsa hori baita: pastela gizarte-elkarrizketako (sasi-elkarrizketako) mahaikideen artean banatzea, berez Lanbideri dagozkion egitekoak gauzatzeko. Lanbidek gaur ez du funtzionamendu egokirik; antolakuntza arazo handiak ditu; bere langileek ez dute GE Mahaian erabakitako planen berririk, eta ondorioz, ezta kasu bakoitzari dagozkion funtzio eta eskumenak ere.

Hori baita Gizarte-Elkarrizketako Mahaiaren ezaugarria, hots, alde bakoitzak bere ardurei uko egitea eta gobernuaren zein patronalaren ekintzari babesa ematea. Hau ez da gizarte-elkarrizketako mahai bat, patronalari eta gobernuari ematen zaion bake sozialerako mahaia baizik. Akordioan bertan esaten dute hau: Mahaiak "berretsi egiten du ardura partekatuan oinarria duen eredu soziolaborala, zeinak (...) biderkatu egiten baititu gizarte osoaren onarpena, gizarte-eragileen bermea duen aldetik". Ideia hauxe jaso zuen 2011n estatu mailan CCOOek, UGTk, CEOEk eta Zapateroren gobernuak sinatutako akordioak, zeinetan jaso baitzen pentsioak murrizteko eta erretiro adina 67 urteraino atzeratzeko erabakia.

Azken urteetan etengabeko prestakuntzarako banatutako fondoen kasuan gertatutakoa aurrekoaren adibide argia da. Taulan agertzen diren datuak hori adierazten dute. Nahiz eta 2011an laguntzen kopuru osoa jaitsi (20,77 milioitik 20,55era) gizarte eztabaidan parte hartu eta gai hauen inguruan erabakitzen dutenek ez dute inolako murrizketarik jasaten. Are gehiago, bai UGTek, CCOOek zein patronalak jasotako kopuruak handitzeko erabakia hartu dute, 2009an %34a zena 2011an %37,6 izatera pasatu da.

	2009	2010	2011
KOPURU OSOA	21.262.802,00 €	20.773.393,00 €	20.550.000,00 €
UGT	2.025.000,00 €	2.075.000,00 €	2.075.000,00 €
CCOO	2.025.000,00 €	2.075.000,00 €	2.075.000,00 €
PATRONAL	3.310.534,00 €	3.557.000,00 €	3.581.423,00 €
GUZTIRA	7.360.534,00 €	7.707.657,00 €	7.731.423,00 €
%	%34,00	%37,00	%37,60

Iturria 2012ko otsailaren 15eko EHAO

Langabeziaren aurkako plana deitutako akordio hutsal bat sinatzea Eusko Jaurlaritzaren eta patronalaren jokabidea zuritzea da; eurek ardura handia dute pairatzen dugun langabezia eta eskubide laboral zein sozial murriztuen egoeran:

- Eusko Jaurlaritzak doikuntza politikak eta murrizketa sozialak ezartzen ditu; hezkuntza, osasungintza eta etxebizitzarako bideratzen den dirua mozten du; gizarte-prestazioak ari da kentzen, eta milaka herritarri hauek izateko eskubidea ukatzen die; enplegu publikoa ere gutxitzen ari da.
- Euskal patronala EBko beste toki askotan baino askoz enplegu gehiago ari da suntsitzen, BPGaren bilakaera antzekoa izanagatik ere. Honetarako aldi baterako kontratuak ez ditu berritzen, baina enplegu finkoa ere murrizten du. Gainera, geratzen direnen lan-baldintzak okertu nahi ditu.
- Politika hauek langabezia haztea ekartzen dute eta biztanleria oro har txirotu egiten dute, enplegua dutela zein ez. Akordioak politika hauei ematen die babesa.

EUSKO JAURLARITZAREN GASTUA. 2009-2012

	2009	2010	2011	2012
MILIOI EURO	10254	10160	9720	9518
BPG (%)	15,9	15,5	14,5	13,7